

AP-8 AUTOBIDEAREN ORIOKO LOTUNE BERRIAN MILIOI BAT JOAN-ETORRI IZAN DIRA ZABALIK EGON DEN LEHEN URTEAN

Orioko lotunea arian-arian gehiago erabili da 2009ko abuztuan ireki zenez geroztik, eta egunean 4.000 joan-etorri baino gehiago izan ditu 2010eko uztailean.

Autobidearen Orio–Aritzeta tartean trafikoa %11 gehitu da sei lerroak zerbitzuan jarri direnez gero: egunean 35.000 ibilgailu izatetik 42.000 izatera.

Errepidea: **AP-8**

Proiektua: **AP-8 autobidea Aritzeta eta Orio artean 6 lerroa zabaltzea**
Orioko lotune erdia eraikitzea

Luzera: **7 kilometro**

Inbertsio orokorra: **54 milioi euro**

Irekita: **2009ko abuztuan**

Osagai nagusiak:

A-8 autobidearen enborra Aritzeta eta Orio artean 6 lerroa zabaltzea (7 kilometro)

A-8 autobidearen trazatuaren 3,7 kilometro aldatzea

***Orioko lotune erdia**

A-8 autobideko zirkulazioa. Orio-Aritzeta zatia: **42.000 ibilgailu egunean**

Oriotik AP-8 autobiderako lotunearen lehen urteak oso emaitza pozgarria utzi du: milioi bat ibilgailuk baino gehiagok erabili du lotunea, 2008ko abuztuaren 14an ireki zenez gero.

Oriotik AP-8 autobiderako lotunearen erabilpena arian-arian hazi da lehen funtzionamendu urte honetan: lehen hilabeteetan (2009ko abuztua-abendua) egunean 2.700 ibilgailu pasatzen ziren bertatik, 2010eko martxoan egunean 3.500 ibilgailu, eta 2010eko uztailean 4.000 baino gehiago, ibilgailu astunen portzentaia %9 izanda.

Orioko lotunea ia erdi eta erdi erabiltzen da bi noranzkoetan, Donostiatik Oriorakoa pixka bat gailentzen zaiola Oriotik Donostiaranzkoari (kopuruetan: 539.000 eta 519.000 ibilgailu).

SEI LERRO ORIO–ARITZETA TARTEAN

Orio eta Aritzeta arteko 7 kilometroetan AP-8 autobidea sei lerrotara zabaldu zen, eta Orioko lotunearen garai berean jarri zen zerbitzuan. Harrez gero, %11 gehitu da tarte horretako trafikoa, AP-8 autobideak Gipuzkoan duen handienetako bat.

Joan den maiatzean Orio-Aritzeta tartean egunean 42.500 ibilgailuko trafikoa izan zen, horietatik 38.000 inguru ibilgailu arinak ziren eta 4.500 astunak. Kopuru horiek erakusten dute %11 hazi dela ibilgailuen kopurua 2009ko maiatzaren aldean, hau da, autobidea tarte horretan sei lerrotara zabaldu aurreko hilaren aldean, orduan trafikoa egunean 35.800 ibilgailukoa baitzen, haietatik 32.000 arinak eta 3.800 astunak izanik.

TXANKAKO BIDEAREN HOBEKUNTZA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Bide Azpiegituren Agentziaren bidez, 1,1 milioi euro inbertituko ditu Orio eta AP-8 arteko lotune berritik gertu aurkitzen den Txanka eremua eta Orioko hondartza lotzen dituen errepidea zabaldu eta hobetzeko.

Ekintza hau autobidea sei erreitara handitzeko egin diren lanen eta Orioko lotune berriaren eraikuntza-lanen osagarria da. 2009 urteko abuztuan Orio eta AP-8 arteko lotura zuzena martxan jarri zen eta eremu horretako errepide bidezko komunikazioa hobetze aldera, autobidera sartzeko lotune berriaren inguruan aurkitzen den errepidearen egokitzapen prozesu bat eramango da aurrera.

Lotune berriaren irekieraren batera, nabarmen handitu da Txanka eta Orioko hondartza lotzen dituen bideak jasaten duen trafikoa. Hori dela eta, bidea zabaldu eta hobetzeko lanak egingo dira, egoera berriari erantzun egoki bat eman ahal izateko.